



## Lana / La obra

Plazer handiz idazten zuela esaten zuen Sciasciak, eta nabaritzen zaio esku artean duzun makina bixi honetan. Lehen begiratuan, oso narrazio argia eta zuzena da: argumentuak bizi-bizi korritzen du, elkarrizketak umore finez josita daude, karakterizazio eta deskribapenei ere ez zaie gatz eta piperrik falta, eta autoreak «preziosozko estiletea bezala» darabilen lumaz zorrozturik dago testuan zehar garatzen den bi mundu-ikuskeraren arteko norgehiagoka filosofikoa.

Eleberriak, hala, badu saiakeratik nahiz tragi-komediatik, bai eta egitura sozial jakin bat irudikatze gogotik ere: haren manerak eta izaerak, haren erritoak, morrontzak eta elkar hartzeak, haren azaleko eta barneko engranajeak. Beste aldean, kontrapuntu gisa, eleberriaren hasieran askatasun-ekintza baten aukerari noiz heltzeko esperoan alderrai aurkezten zaigun narratzailearen ahotsa dago, «bakarkako gizonaren musika ukigabe eta barea», artistaren begirada.

## Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Todo modo**  
Egilea / Autor: **Leonardo Sciascia**  
Saia / Colección: Literatura Unibertsala, 184  
ISBN / EAN: 978-84-9109-797-6  
Salneurria / Precio: 17 € [BEZ barne – IVA incluído]  
Orri kopurua / N° páginas: 184  
Formatua / Formato: Rustika / Rústica – 13 x 19,5 cm  
Materia: Helduentzako literatura – Literatura para adultos



## Egilea / Autora

**Leonardo Sciascia** [Racalmuto, 1921 - Palermo 1989].

Italiako gerraondoko literatura-belaunaldi aparte hartako kide ezagunenetakoa da. Generoak hibridatzeko joera zeukan, eta narrazioan saiakera txertatzekoa (eta alderantziz). Idazle bezain irakurle sutua, bere ibilbidean oso nabarmena da garai historikoen eta egileen arteko elkarrizketa sortzeko gogoia, gizartearen ikuspegi kritiko batetik. Ederki zekien diskurtsoa testuinguru sinesgarri batean lurreratzen, bere estilo bizi, zehatz eta umoretsuarekin. Alberto Moraviak esan zuenez, ironia siziliar tipikoa da harena: itxuraz onbera, barruan hilgarria. Beste idazlan batzuk: *Le parrocchie di Regalpetra*, *Morte dell'inquisitore*, *La scomparsa di Majorana*, *L'affaire Moro*. Euskaraz: *Itsaso ardo kolorea* eta *Hontzaren eguna*.

## Itzultzailea / Traductor

**Gaizka Ugalde** [Bilbo, 1976].

Artearen Historia eta Antropologia ikasi zituen. Ikus-antropologian lan egiten duen Sigi-Saga Ekoizpenak kooperatibako kide da eta euskara irakasle dabil Barakaldoko AEKn. Itzultzaile gisa, artearen alorrean aritu da batez ere, gaztelaniatik eta ingelesetik euskarara. Emazte txiletarra du, eta hiru seme-alaba. Portugaleten bizi da.